

Literatura

Edo zu edo ni.
Ixiar Rozas.
Erein, 2000



Erdibidean geratzea ere

MENDE HASIERAKO ebento literario nagusia beste bat izan omen zen, argialetxe bereko beste nobela bat, modu berean emakume batek idatzitakoa. Baina, alajaina, Ixiar Rozasen estreinako liburuaren harrera ere ez zen izan nolana hikoia. Luze gabe harrera kritikoa: kaleratu eta ondorengo lau hilabeteetan, zortzi kritika literario. Batzuk, auskalo zirrarak eraginda, pertsona berak idatziak, bertsio meioratuan-edo: *Bizitzia aldatuz* izenarekin lehenik, *Bizitzia berreskuratuz* gero. Kritiken hemeroteca markagailu balitz, 5 eta 8 esan-gonek, Rozasen alde.

Baina konpetizioa baino, literatura lehenetsi nahi duen tarte honetarako, hara: Graziana Barrenetxea dugu nobelako protagonista, 58 urteko emaztea. Bidegurutze batean aurkitzen da, seguru bere bizitzako garrantzitsuenean. Senarra du, nola esan, etxera iritsi, sofan etzan eta telebista pizten duen horietakoa. Seme-alabak habiatik kanpo, lagunik apenak, bizitza soziala mugatuko zaio merkatuko erosketetara. Eta gero dago adinaren mamua, zahartzearen izorratzea. “30 urte ezkontuta, 10 auzo horretan, 28 Agustín jaio zenetik, 24 Laurarekin, eta horietatik zenbat izan ziren niretzat”, galdetuko dio bere buruari. Galdetzeko gero, “egon al daiteke hilik norbera, hilik egon gabe”.

Egiten duen arte bidaia bat, ezagutzen duen arte Anjel, txoferra, autobusa aparkatzeko garaje finko-

rik ez duena. Ez da izango, ordea, kromo kanbiatze soila, ez bada bizitza berri baterako atea. Eta zalan-tzati: “Nola egingo diot uko egun batetik bestera azken hogeita hamar urteotako bizitzari”. Bada, igarriko diozue nobela irakurri ahala: aldatzen da bizitza, bai horixe, aldatzen du protagonistak, zehatzago esanda. Kontakizunak aldatzen duen bezala, lehenengo, bigarren, hirugarren, narratzaileak; aldatzen duen bezala narratzaileak solaskidea; berdin aldatzen da denbora: orainetik iraganera, iraganetik orainera.

Eta egia da edabe, akelarre, sorginen irudia erabil-tzea irudi liberatzaile gisa, zer nahi duzue esatea, pereza pixka bat ematen duela. Baina liburuak pasatzen duen mezua, mende hasierako ebento literario-ak pasatzen zuena baino askoz ere iruditzen zait askatzaileagoa. Eta alde horretatik kritika errepika-tzaileak arrazoi zuela: bizitza aldaketa baino, bizitza berreskuratze baten istorioa da hemen kontatzen zaiguna, gaur hain modan dagoen ahalduentzearen bidetik. Bukaerak sorpresa du, gainera. Eta epitafio gisa ere balioko lukeen sententzia hau: “puzlea osat-zeko modu asko dagoela ikusi dut eta ez dagoela zertan osatu, erdibidean geratzea ere zilegi dela”. ■

Aritz Galarraga



HABE

Helduen Aitzakia eta Berreskalduntzerako Erakunde

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Gazte nahiz heldu,
euskara ikastea
merezi du**